

EUSKOTRENEK TREN ZERBITZUA INDARTUKO DU REAL SOCIEDAD - ATHLETIC CLUB NESKEN FUTBOL DERBIA DELA ETA

Euskotrenek tren zerbitzua indartuko du igandean Real Sociedad eta Athletic Club taldeek jokatuko duten futbol partidua dela eta. Emakumezkoen Ligako partidu hori Anoetan otsailaren 10ean goizeko 11:30etan jokatuko da.

Zerbitzua indartzen duten tren bereziek ohiko geldialdiak egingo dituzte gainerako geltokietan. Tren zerbitzuek honako ezaugarri hauek izango dituzte:

NORGEHIAGOKAREN AURRETIK

- Hendaia – ANOETA: 10:33
- Irun – ANOETA: 10:48
- Oiartzun – ANOETA: 10:43
- Errenteria – ANOETA: 10:38
- Altza – ANOETA: 10:35, 11:05

- Lasarte – ANOETA: 10:30, 11:00
- Amara – ANOETA: 10:52

NORGEHIAGOKAREN ONDOREN

- **ANOETA** – Hendaia: 13:18, 13:30, 13:36
- **ANOETA** – Altza: 13:25, 13:43

- **ANOETA** – Lasarte: 13:30, 13:40
- **ANOETA** – Zumaia: 13:44

Gainerako trenek bere ohiko ordutegia mantenduko dute.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen honako telefono zenbaki honetara dei dezakete 944 333 333. Horrez gain informazioa jaso dezakete Euskotrenen langileak dauden geltokietan, APP ofizialean, konpainiaren web gunean www.euskotren.eus eta [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) twitter gunean

Igorpen data: osteguna, 2019ko otsailaren 7an

Euskadi, auzolana, bien común

